Osakidetza

ARABA ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA ARABA

# ERRINOMANOMETRIA

Errinomanometria sudurraren bidez arnasketa neurtzeko proba bat da.

Sudur-zuloan finkatzen den gailu bat eta maskara bat erabiliz egiten da, eta horiek sudur-zuloetatik igarotzen den airearen presioak eta fluxuak erregistratzen dituen aparatu bati konektatuta egoten dira.

Ez da proba mingarria, baina, kasuren batean, sudurreko odoljario iragankor txiki bat gerta liteke.

Bi sudur-hobietan egiten da, eta, ondoren, sendagai baten tanta batzuk pixkanaka botatzen dira hobi bakoitzean. Botika 15 edo 30 minutuz jarduten uzten da, eta neurketa berriro egiten da.

Erabilitako medikamentuak Oximetazolina du izena. Botikak odol-hodiak hersten ditu inguru horretan, eta horrek sudur-mukosa arintzen du.

Probak 30 minutu inguruko iraupena du.

Abisa iezaguzu Oximetazolinari edo kongestioa arintzekoren bati alergia badiozu.

2022ko apirilean egina IO-ORL-14

Informazio gehiago nahi baduzu, galdetu arreta ematen dizuten profesionalei.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD